

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sustapen Departamentuak N-121-A Iruña-Behobia errepidearen funtzionamendua aztertu du etorkizuneko proiektuak hobetzeko

*Bideak dituen ahultasunak eta sendotasunak identifikatzean eta diseinu-proposamenak zehaztean datza azterlana.*

Martes, 13 de mayo de 2014

Sustapen Departamentuak lizitazioa atera berri du N-121-A errepidearen funtzionaltasunaren eta bide-segurtasunaren azterlan teknikoa. Errepidearen funtzionamendua eta Iruñerriko eskualdeko autobien sarean sortzen den trafikoaren banaketa aztertzeke balioko du.

Lizitazioaren aurrekontua 100.000 eurokoa da (BEZa barne), eta 8 hilabetean burutuko dela aurreikusi da. Nafarroako Gobernua errepideko ahultasunak identifikatzeko gauzatzen ari den analisiaren barruan egingo da azterlana, ondoren behar diren proiektuak gauzatzeko eta onesten diren proiektu horien oinarri obrak egiteko. Zehazki, honako hauek dira azterlanean sartuko diren lanak: zehaztu bidearen ahultasun eta sendotasunak funtzionaltasunari eta bide-segurtasunari dagokienez; zirkulazioaren edo trafikoaren azterlana; aurkitutako hutsuneak hobetzeko diseinu-proposamenak zehaztea; eta, azkenik, bide horretako trafikoaren eta Sakanako autobien (A-10), Donejakue bidearen (A-12) eta Pirinioetako autobien (A-21), Iruñeko ingurabideen (PA-30) eta Iruña ekialdekoaren (A-15) arteko elkarreraginaren azterlana aurkeztuko da.

Gaur egun, N-121-A Iruña-Behobia interes orokorreko errepidea prestazio handikoa da, egunean 10.000 ibilgailu pasatzen dira bertatik batez beste, horien % 28 ibilgailu astunak dira, istripu asko gertatu diren tarteak daude eta arriskutsuak izan daitezkeen gunek ditu.

Kontuan izan behar da errepidea garrantzi handikoa dela, Frantziarekiko loturaren ardatz estrategikoa delako. Izan ere, ez da Foru Komunitatea jatorri edo helburu duen trafikoarentzat bakarrik, Nafarroa penintsulako beste eskualde batzuekin ere lotzen du. Halaber, errepide horretatik dabilen trafikoak Nafarroako errepide nagusiekin, esate baterako, ingurabideekin, autobideekin eta autobiekin duen interkonexioari buruzko informazioa ezinbestekoa da Iruñerriko eragin-eremuko bide-sarea antolatzeke.

### Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko alternatibak

Gogorarazi behar da, aipatu den azterlana egiten den bitartean, lizitazio-fasean dela N-121-A errepideko (Iruña-Behobia) Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko alternatiben azterlanak. 81.500 euroko (BEZa barne) aurrekontua du eta lanak 5 hilabetean egingo dira.

Azterlanaren helburua N-121-A errepideko Belateko eta Almandozko

tunelak bitan banatzeko bideragarriak diren trazadura-aukerak zehaztea eta lehendik dagoen galtzada tartearen hasieran eta amaieran bikoiztuta dagoen galtzada berriarekin lotzeko egin beharreko bi tunelen eta trazadura-tartearen arteko aire zabaleko errepidearen tartearen bikoiztea da.

Aukeratzen den alternatiban oinarrituta finantzatzeko moduen inguruko azterlan ekonomikoa egingo da, baita proiektua idaztean beharrezkoa izango den kanpaina geoteknikoaren proposamena eta balorazioa ere.